

GARAZIKO EUSKARAREN HIZKUNTZA-ALDAKORTASUNA

Tesiaren egilea: Alexander Artzelus Muxika

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Tesi-zuzendaria: Iñaki Camino Lertxundi eta Juan Manuel Hernández-Campoy

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honen helburua Garaziko hizkuntza-aldakortasuna aztertzea da, eta, horretarako, Labovek abiatutako soziolinguistika bariationistaren iturritik edan dugu. Diziplina hori XXI. mendean hasi da garatzen gurean, orain arte, euskararen aldakortasuna ikuspuntu geografikotik aztertu izan baita, batez ere. Hori dela eta, ibilbide horretan beste urrats bat egin nahiko genuke. Gainera, aipatu beharra dago Iparraldean nahiko gune ahaztua izan dela aldakortasunaz gurean egin diren lanetan, eta inguru horretako berri zehatzagoa ematen lagunduko dugulakoan ere bagaude.

Muga politikoak erditik zatitzen du Garazi, Luzaide Espainiako estatuan baitago, eta gainerako herriak, berriz, Frantziakoan. Herri gutxituetan estatuen presentzia inoiz baino handiagoa den honetan, eragin-foku desberdinen menpe dago ibarreko euskara. Mugatik iparraldera frantsesa eta Iparraldeko batua ari dira eragina izaten, eta mugatik hegoaldera, berriz, gaztelania eta Hegoaldeko batua. Iparraldeko batua eta Hegoaldeko batua deiturikoak hizkuntza-barietate supralokalak dira: lehendabizikoa XIX. mendetik goiti garatzen dabiren nafar-lapurtera literarioaren ondorengoa da, eta bigarrena, berriz, erdialdeko euskalkira begira dagoen euskara batua.

Geografia, adina, generoa, hezkuntza-eredua eta praktika-komunitatea dira aldakortasuna aztertzeko kontuan hartu ditugun aldagai sozialak. Lehenengoari dagokionez, sei eremutan banatu dugu ibarra: Luzaide, Arnegi-Lasa, Irulegi-Anhauze, Ezterenzubi, Hergarai eta Gamarte-Ainhiza; hiru adin-talde bereizi ditugu: adinekoak (70-85 urte), helduak (45-60 urte) eta gazteak (20-35 urte); hezkuntza-ereduaren barruan, ikastolan euskara hutsean ikasitakoak eta eskola publikoan elebidunez edo erdaraz ikasiriko gazteak ditugu; azkenik, gazteen artean, hiru praktika-komunitate hauek aztertu ditugu: gaztetxeko giroan ibiltzen direnak, herrietako besta-komiteetan ibiltzen direnak eta gazte luzaidarrak. Denera 48 lekuko elkarrizketatu ditugu. Hizkuntza-aldagaiei dagokienez, 31 aztertu ditugu, arlo fonikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren barrukoak. Metodologiari dagokionez, elkarrizketa askea eta erdi-gidatua erabili ditugu datuak lortzeko. Horrela, hiztunaren *vernacular*-a edo egunerokoan erabiltzen duen lagun arteko hizkera arduragabea

bildu ahal izan dugulakoan gaude. Datuak aztertzeko, R programa estatistikoaren bidez, *mixed logistic regression* proba egin dugu.

Hauek izan dira atera ahal izan ditugun ondorio nagusiak:

- 1) Alde txikia dago mugaren bi aldeetako adinekoen artean, baina gero eta handiagoa bihurtzen ari da adinean beheiti joaten garen ber, batez ere gazteen artean. Frantsesa / gaztelania eta Iparraldeko batua / Hegoaldeko batua dira horretan eragina dutenak. Alde handiagoa dago helduen eta gazteen artean adinekoen eta helduen artean baino.
- 2) Badira, geografikoki, ibarra mendebalde / ekialde bereizten duten hizkuntza-ezaugarri batzuk. Gazteen artean, ordea, alde hori neutralizatzen ari da.
- 3) Generoak ez du ia eraginik adinekoen artean. Emazte helduak berritzaile izaten hasten dira, eta areago gazteak.
- 4) Hezkuntza-ereduaren arabera, ez dago alde aipagarriarik.
- 5) Gaztetxeko giroan ibiltzen diren gazteek dute Iparraldeko batuaren eta frantsesaren eraginik handiena. Herrietako besta-komiteetakoak gehiago lotzen zaizkio ibarreko oinarri dialektalari, eta, azkenik, luzaidarrek euskara batu estandarraren eta Hegoaldeko batuaren eragina dute.